

2007an jaiotzen %25 baino gehiago ezkontzatik kanpo izan ziren

Jaiotze-kopuruak goraka segitzen du, 20.596 izan dira, 2006an baino %2,8 gehiago

2007. urtean, ezkontzatik kanpo jaiotakoak 5.568 izan ziren; Eustatek landutako datuen arabera Jaiotzen %27,0, hots, 2006an (%24,7) baino gehiago. Arabak eta Bizkaiak Euskal AEk baino ehuneko handiagoak izan zituzten, %27,3 eta %28,0; Gipuzkoak, berriz, balio erlatibo txikiagoak (%25,5). Azken hamazazpi urteetan guraso ezkongabeen haurren ehunekoa ia laukoiztu egin da, 1990ean %7,7 baitzen.

2007an 20.596 haur jaio ziren Euskal AEn, %2,8ko hazkundera 2006aren aldean, eta hazkunde hau 2005 eta 2006 artean izandakoa (%1,7) baino handiagoa izan zen. Araban izan zen gehikuntzarik handiena (%3,7), ondoren Bizkaian (%3,3) eta Gipuzkoan (%1,6).

Jaiotzak mila biztanleko 9,7 izan ziren, 1960ko hamarkadako milako 20 haietatik oso urruti. Kopururik handiena Gipuzkoan da (%10,5), ondoren Araban (%10,0) eta azkenik Bizkaian (%9,1).

1976tik aurrera, jaiotzek beheranzko joera nabarmena izan zuten; joera hori, dena dela, moteldu egin zen 80ko urteen amaieran, eta 1994an heldu zen mailarik apalena. 2007ko zifrek berretsi egin dute 1995ean abiatutako jaiotza tasen gorkaldia.

2007 urtean haurren bat izandako emakumeen %76,3k hogeita hamar urte edo gehiago zituen. Talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %44,7 eman baitu. Bestalde, 2006. urtearekin alderatuta, handitu egin da 35 urtetik gorako amen taldea (%31,6), eta berriz ere 25-29koena (%17,1) baino dezente handiagoa da. Amen batez besteko adina, 32,2 urte; eta lehen haurra eduki dutenena, berriz, 31,2, 2006koen antzeko zifrak. 25 urte baino gutxiagoko amen kopuruak gora egiten du, etorkinei esker; guztien %6 da ia.

Azken hamar urteotan, 25-34 urte bitarteko taldeak pisua galdu du, batez ere 25 urtetik 29rakoak, 6,7 ehuneko-puntu galdu baititu. Aitzitik, 9,5 puntu baino gehiago gehitu da 35 urte edo gehiagoko taldea.

Jaiotza ordenari begiratuz gero, 2007. urtean lehen haurrak %57,5 izan ziren, aurreko urtean gertatuaren antzera. Hirugarren eta ondorengo seme-alabak, ordea, %7,3 izan ziren, 2006koaren aldean ehuneko puntu erdia baino pittin bat gehiago.

Erditzeak 20.153 izan ziren: horietatik 19.641, bakunak; 496, bikoitzak; eta 16, hirukoitzak.

100 gizalabako 107 gizasemerena izan zen sexuen arteko proportzioa. Batez beste, 3.299 gramoko pisua izan zuten mutikoek, eta neskatok 3.174koa.

1. taula: 2007an bizirik jaioak, amaren egoitzako lurralde historikoaren arabera

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	20.596	3.027	10.416	7.153
Gizonezkoak	10.627	1.518	5.447	3.662
Emakumezkoak	9.969	1.509	4.969	3.491
Jaiotza-ordena	20.596	3.027	10.416	7.153
Lehenengoa	11.835	1.723	6.220	3.892
Bigarrena	7.252	1.055	3.474	2.723
Hirugarrena edo gehiago	1.509	249	722	538
Amaren adinaren arabera	20.596	3.027	10.416	7.153
< 25 urte	1.348	260	759	329
25 - 29 urte	3.523	545	1.658	1.320
30 - 34 urte	9.208	1.329	4.479	3.400
35 - 39 urte	5.533	739	3.003	1.791
>= 40 urte	984	154	517	313
Amaren egoera zibilaren arabera	20.596	3.027	10.416	7.153
Ezkondua	15.028	2.201	7.496	5.331
Ezkongabea	5.568	826	2.920	1.822

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

+Tlf:+34-945-01 75 49 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp